

IRUZURGILEAK

Iñaki aldai

ialday@irakasle.net

PERTSONAIAK

. Kontalaria	. Gaixoa 1	. Pertsona 1	. Pertsona 5	. Polizia 1
. Iruzurgilea 1	. Gaixoa 1	. Pertsona 2	. Pertsona 6	. Polizia 2
. Iruzurgilea 2	. Gaixoa 3	. Pertsona 3	. Pertsona 7	
. Iruzurgilea 3	. Zaharra	. Pertsona 4	. Pertsona 8	

- Pertsona 4, 5, 6, 7 eta 8 kendu daitezke eta hauen papera 1, 2 eta 3k Hartu. Behar izanez gero, gehiago ere sar daitezke. Polizia 1 eta 2 ere kentzeko edo jartzeko aukera dago.
- 3. mailatik 6. mailararte egiteko egokia

Kontalaria: Aspaldian, gure herrian ba omen ziren bi iruzurgile ikaragarri. Beti gaiztakeriak eta jendeari ziria sartzen pasatzen zuten denbora. Egun batean biak elkartuta zeudela hirugarren bat hurbildu zitzaien.

Iruzurgilea 3: Aizue, gezur haundiak kontatzen duzuela, eta jendeak sinestu egiten dizuela jakin izan dut.

Iruzurgilea 1: Eta zuri zer axola dizu guzti horrek? Arazoren bat?

Iruzurgilea 2: Muturra bero bero eginda joan nahi duzu?

Iruzurgilea 3: Lasai, lasai. Bakarrik gauzotxo bat esan nahi dizuet. Neu naizela iruzurgilerik onena, gezurrik haundienak nik esaten ditut.

Iruzurgi. 1: Hori besterik ez genuen entzun behar. Hemen neu naiz gezurterorik hoberena.

Iruzurgi 2: Hara bestea! Mundu guztiak daki ni naizela ziriak sartzen trebeena.

Iruzurgi. 3: Begira, proba bat egin dezakegu. Gaur bertan jendeari ziri haundiena sartzea lortzen duenak horixe izango da irabazlea.

Iruzurgi. 2: Itxaron apur bat. Nola jakingo dugu nork egin duen iruzurrik handiena? Denok gezurretan hasiko ginateke.

Iruzurgi. 3: Hori ere pentsatuta daukat. Bihar bertan berriro elkartuko gara, eta gure iruzurraren probak ere ekarri beharko ditugu

Iruzurgi. 1+2+3: Ederki. Ikusiko dugu nor den hoberena.

Kontalaria: Hurrengo egunean iruzurgile guztiak berriro elkartu ziren eta bakoitzak bere iruzurra kontatu zuen.

(Eszenatokian 1+2+3 iruzurgileak daude)

Iruzurgi. 2: Egon adi, atzo egin nuen iruzurra kontatuko dizuet eta.

(Iruzurgi. 1 eta Iruzurgi. 3 Eszenatokitik ateratzen dira eta 6 pertsona sartu. Mahai batean botilatxoak daude eta erdian 1000 kiloko harri haundia.)

Iruzurgi. 2: Adi Jaun andreok! Hurbildu zaitetze! Zuen bizitzako aukera! Hurbildu eta entzun! Zuen bizitza aldatuko duen elixirra! Hurbildu!!!

Pertsona 1: Zer dio honek?

Persona 2: Goazen ikustera

Iruzurgi. 2: Elixir magikoa!!! Guztiontzat! Etorri, entzun eta ikusi!

(Pertsona guztiak hurbiltzen zaizkio)

Iruzurgi. 2: Jaun andreok, hona hemen elixir magikoa. Elixir honek min guztiak sendatu, gaztetu eta indar ikaragarria ematen du.

Pertsona 3: Hara bestea, honek tontoak garela uste du.

Persona 4: Txarlatan horietako bat besterik ez da.

Pertsona 5: Denbora galtze hutsa. Goazen hemendik.

Iruzurgi. 2: Itxaron jaun andreok. Elixir magikoak gaitz guztiak sendatu eta munduko gizonik indartsuena bihurtzen zaitu.

Persona 6: Hori txoropitokeria, hori!

Pertsona 7: Halakorik entzun behar ere.

Pertsona 8: Nahikoa da! Goazen hemendik!

Iruzurgi. 2: Ongi da, ongi da. Ez didazuenez sinisten, froga bat egingo dugu.

Pertsona 1: Froga bat?

Pertsona 2: zer egingo duzu?

Iruzurgi. 2: Ikusten duzuenez, talde honetan zaharrena eta indar gutxien duena agure zahar hori da. Ezta? Hurbildu zaitetz mesedez.

(Jendearen artean, agure zahar bat dago oker oker eginda, bastoi eta guzti. Errenka hurbiltzen zaio).

Iruzurgi. 2: Zer moduz zaude?

Zaharra: Oso gaizki. Gorputz osoan mina daukat, eta ez dut batere indarrik.

Iruzurgi. 2: Edan ezazu elixir magikoa. *(Edan egiten du)*
Zer moduz zaude orain?

Zaharra: Ba, egia esan, Askoz hobeto sentitzen naiz. Ez dut inongo minik sentitzen.

Pertsona 3: oooooohhhh

Iruzurgi. 2: Orain ibil zaitetz alde batetik bestera.

(Agure zaharra oinez hasten da. Ez du errenka egiten, bastoia ere jaurti egiten du eta azkenik korrika hasten da).

Zaharra: Ja, ja ja. Korrika ere egin dezaket.

Pertsona 5: Harrigarria!

Pertsona 6: Ez sinistekoa!

Iruzurgi. 2: Eta hori ez da guztia. Ikusten duzue 1000 kiloko harria?

Guztiak: Bai, bai

Iruzurgi. 2: Saia zaituz harria altxatzen.

Zaharra: Hori ezinezkoa da.

Iruzurgi. 2: Aurrera, aurrera. Saiatu zaituz.

Zaharra: Tira, proba egiteagatik...

(Harria errez altxatzen du, baita goruntz jaurti eta berriro hartu ere).

Pertsona 7: Ez banu ikusiko ez nuke sinistuko !

Pertsona 8: Miraria!!!

Iruzurgi. 2: Jaun andreok, elixir honen botilatxoak 1000 euro besterik ez du balio.

Zaharra: Ez dio ardura zenbat balio duen. Niri emaidazu beste 2 botilatxo.

Pertsona 1: Nik ere nahi dut! Nik ere nahi dut!

Pertsona 2: Niri eman bi botilatxo!

Pertsona 3: Ni nengoen lehenengo! Botilatxo bat erosi nahi dut!

Pertsona 4: 3 botilatxo mesedez!

Pertsona 5: Ez aurreratu! Botilatxo 1!

Iruzurgi. 2: Lasai, lasai. Guztiontzat dago. Ea zuretzat 2, 3 zuretzat, beste bi zuretzat...

(Botilatxo guztiak banatzen ditu , ordaindu egiten diote eta pertsona guztiak ateratzen dira agure zaharra izan ezik).

Iruzurgi. 2: Ja, ja ,ja. Ikusi duzu zein erreza izan den tranpa egitea?

Zaharra: Gezurtero ikaragarria zara. Sinistu egin dute agure zaharra nintzela.

Iruzurgi. 2: Eta 1000 kiloko harria? Ja, ja. Kartoizkoa da, eta astakirten hauek konturatu ere ez dira egin.

Zaharra: Banatu dezagun orain dirua. Erdia zuretzat, eta erdia niretzat.

Iruzurgi. 2: Itxaron. Nahi duzu apustu egin?

Zaharra: Apostua?

(Lurretik harri txiki bat hartzen du)

Iruzurgi. 2: Harria zein eskutan dudan asmatzen baduzu, diru guztia zuretzat, eta bestela niretzat. Ados?

Zaharra: Ados.

(Iruzurgile 2 eskuak atzean dituela, agure zahara konturatu gabe, harritxoa poltsikoan gordetzen du)

Zaharra: Ezkerrean daukazu.

Iruzurgi. 2: *(Ezkerra erakutsiz batera)* Oooohh. Esku honetan ez dago ezer. Diru guztia niretzat.

Zaharra: Kaka zaharra!

(Agure zaharra joan egiten da eta Iruzurgi. 1 eta Iruzurgi. 3 eszenatokia sartzen dira).

Iruzurgi. 2: *(Harria poltsikotik ateraz)* ja, ja, ja. Ikusi duzue? Eta proba modura hemen daukat lapurtutako dirua. 20.000 euro. Argi dago ni naizela iruzurgilerik haundiena.

Iruzurgi. 1: Hori ez da ezer. Begira atzo egin nuen iruzurra.

(Mediku bata zuria jazten du eta Iruzurgi. 2 eta Iruzurgi. 3 eszenatokitik irtetzen dira)

Iruzurgi. 1: Mundu guztiari medikua naizela sinestu araziko diot. Lehenengoa, pasa aurrera.

Gaixoa 1: *(errenka sartzen da)* Mediku jauna, eskilaretan behera erori naiz. Hankako hezurra hautsi dudala uste dut.

Iruzurgi. 1: Har ezazu aspirina hau eta sendatu egingo zara.

Gaixoa 1: Baina jauna, hezurra apurtuta dudala...

Iruzurgi. 1: Hezurra apurtuta, hezurra apurtuta... Zer jakingo duzu zuk. Hemen neu naiz medikua. Hartu aspirina eta kitto.

Gaixoa 1: Zuk esaten baduzu...

Iruzurgi. 1: 100 Euro mesedez.

Gaixoa 1: Nola? Aspirina batengatik 100 euro???

- Iruzurgi. 1: Aizu, munduko medikurik ospetsuenarekin ari zara. Txina, Amerika eta Bilboko eskola onenetan ikasi dut. Errespeto bat.
- Gaixoa 1: Tira, tira, horrela bada zuk jakingo duzu zer den komenigarriena. Tori dirua.
- Iruzurgi. 1: Hurrengoa, aurrera.
- Gaixoa 2: Mediku jauna, geroz eta gutxiago ikusten dut. Betaurrekoak behar ditut.
- Iruzurgi. 1: Zuk behar duzuna, aspirina da.
- Gaixoa 2: Aspirina? Baina nire arazoa begietan dago.
- Iruzurgi. 1: Begietan, Begietan... zer jakingo duzu zuk? Ea zein letra da hau? (*A ikaragarri haundi bat begi aurrean jartzen dio*)
- Gaixoa 2: A. Baino oso letra haundia da, eta horren gertu jarri didazu...
- Iruzurgi. 1: Aizu, munduko medikurik ospetsuenarekin ari zara. Txina, Amerika eta Bilboko eskola onenetan ikasi dut. Errespeto bat. Hartu aspirina eta 100 euro mesedez.
- Gaixoa 2: Tira, tira, horrela bada zuk jakingo duzu zer den komenigarriena. Tori dirua.
- Iruzurgi. 1: Ja, ja, ja. Hau pentsatzen nuen baino errezagoa da. Azkenengoari ziri haundiena sartuko diot. Aurrera hurrengoa.

(Gaixoa 3 sartzen da eszenatokira.)

Iruzurgi. 1: Ummmm, oso itxura txarra daukazu.

Gaixoa 3: Ez, ez. Ni oso ondo nago mediku jauna. Nire semeak katarroa dauka, eta jarabea nahi dut berarentzat.

Iruzurgi. 1: Oso ondo zauden edo ez, nik esango dut, hemen neu naiz medikua eta. Egon geldi, proba batzuk egingo dizkizut.

Gaixoa 3: Nik semearentzako jara...

Iruzurgi. 1: Ixo! *(Eztarria aztertzeke erabiltzen den makilatxo horietako bat ateratzen du)*. Atera ezazu mingaina.

Gaixoa 3: Baina nik...

Iruzurgi. 1: Mingaina!

(mingaina ateratzen du, eta makilatxoa sartzen dio eta aztertzen hasten da)

Gaixoa 3: Aaaaaa

Iruzurgi. 1: Ui, uii uuuiiiiiii. Ea, orain esan Pamplona.

(Makilatxoa eztarrian duenez ezin du ongi ahozkatu).

Gaixoa 3: Baanboolona.

Iruzurgi. 1: Nik esaten nuena, hau ez dago batere ongi. Ikus dezagun paparra *(Fonendoskopioarekin aztertzen hasten da, eta buruarekin ezezko keinuak egiten ditu)* Ez, ez ez. Hau gauza serioa da.

Gaixoa : *(Honez gero urduritzen hasia dago)* Nola gauza serioa dela?

Iruzurgi. 1: Hartu arnasa, bota arnasa. Hartu arnasa, bota arnasa, hartu arnasa, bota arnasa. (fonendoskopioarekin begira jarraitzen du eta *geroz eta azkarrago esaten hasten da*). Hartu, bota, hartu, bota, hartubota hartubota hartubotahartubotahartu.

(Gaixoa 3 saiatzen da esandakoa betetzen baina horren arin doanez, nekearen nekez estulka eta arnasestuka bukatzen du).

Iruzurgi. 1: Sentitzen dut hau esatea, baina oso gaixotasun grabea daukazu.

Gaixoa 3: gaixotasun grabea??? Baina nik uste nuen osasuntsu nengoela.

Iruzurgi. 1: Sukar haundia duzula ere esango nuke.

Gaixoa 3: Ez, hori ziur ezetz. Igarriko nuke.

Iruzurgi. 1: *(Termometro bat ateratzen du)*. Ireki ahoa.

Gaixoa 3: Baina nik ez daukat...*(termometroa ahoan sartzen dio)*

Iruzurgi. 1: Egon ixilik!

(Termometroa ahotik atero eta begiratzen hasten da).

Iruzurgi. 1: 42!

Gaixoa 3. 42???

Iruzurgi. 1: Jauna, Hiltorian zude.

Gaixoa 3: Zeeeeer???

Iruzurgi 1: Sentitzen dut.

Gaixoa 3: Eta ez dago osatzeko modurik?

Iruzurgi. 1: Ez dago zer eginik.

Gaixoa 3: Ai ama, ai ama, eta nik, osasun ona nuelakoan. Hau da zorigaitza.

Iruzurgi. 1: Beno, behar bada nik dudan sendagai berezi batek...

Gaixoa 3: Mesedez mediku jauna. Edozer egiteko prest egongo nintzateke.

Iruzurgi. 1: Baina oso sendagai garestia da.

Gaixoa 3: Ez dio ardura diruak.

Iruzurgi. 1: Ongi da. Tori sendagai berezia (*aspirina ematen dio*). 20.000 euro mesedez.

Gaixoa 3: 20.000 euro? Baina honek aspirina bat dirudi.

Iruzurgi. 1: Aizu, munduko medikurik ospetsuenarekin ari zara. Txina, Amerika eta Bilboko eskola onenetan ikasi dut. Hau sendagai berezia da. Baina hiltorian jarraitu nahi baduzu...

Gaixoa 3: Ez hasarretu mediku jauna. Tori dirua eta ekarri sendagia..

(Joan egiten da gaixoa 3 eta Iruzurgi. eta 2 Iruzurgi. 3 sartzen dira)

Iruzurgi. 1: Ikusi duzue? Nor da hemen iruzurgilerik hoberena?

Iruzurgi. 3: Ez da gaizki egon. Eta non daude probak?

Iruzurgi. 1: Hemen daukat lortutako dirua. 20.200 euro. Irabazi dut!

Iruzurgi. 3: Ez horren azkar. Neu naiz irabazlea.

Iruzurgi. 1: Zu irabazlea?

Iruzurgi. 2: Nori sartu diozu ziria?

Iruzurgi. 3: Ez al zarete konturatzen? Zuei!

Iruzurgi. 1: Gurí???

Iruzurgi. 2: Hori tontokeria. Eta jakin daiteke zein Iruzur egin diguzun?

Iruzurgi. 3: Hauxe da nire iruzurra: ni ez naizela iruzurgilea. Polizia naiz.

Iruzurgi. 1+2: Polizia???

Iruzurgi. 3: Bai eta hemen ditut probak. Lapurtu duzuen diru guztia. Lankideok etor zaitezte.

(Bi polizia sartzen dira eszenatokira)

Polizia 1: Atxilotuta zaudete.

Policía 2: Altxa eskuak, eta segi kartzelara

Kontalaria: Honela, iruzurgileak, iruzurtuak izan ziren, eta tranpak egiteko gogoa betirako kendu zitzaien.